



## **Arartekoaren EBAZPENA, 2020ko urriaren 8koa; horren bidez, Arartekoaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika onetsi da.**

Haurrak eta nerabeak babestu eta sustatzeko Arartekoa erakundeak duen konpromisoa erakundearen beraren izaeraren funtsezko elementuetako bat da. Erakundearen erreferentziazko arau nagusia Nazio Batuen Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa da, eta horrekin egiten du lan bere eskumeneko esparruetan, eskubide horiek sustatu eta babesteko.

Konpromiso hori erakundearen barruan aplikatzekoa ere bada, bertan ikusarazi behar direlako haurrak eta nerabeak babestu eta defendatzearekin koherenteak diren jokabideak, babestu beharreko pertsonak gero eta zaurgarriagoak izan orduan eta jokabide zorrotzagoak izanik. Hala, beharrezko neurriak artikulatu beharko dira Arartekoaren ekimen edo jardueretan parte hartzen duen haur edo nerabe ororen eskubideak errespetatu daitezen, besteak beste, edozein motatako abusu edo tratu txarren aurrean babestuak izateko eskubidea.

Haur eta nerabeei zuzendutako tratu ona bermatzeko neurriak prebentzio arloan zein erantzun sistematiko, azkar eta eraginkorra emateko arloan hedatu behar dira, tratu desagoki edo tratu txarren susmo edo zalantza dagoen kasuetan.

Horregatik guztiatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– ematen dizkidan eskuduntzen arabera, honako hau

### **Ebatzi dut**

Arartekoaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika onartzea, eranskin gisa atxiki zaiona ebazpen hori; onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Manuel Lezertua Rodríguez  
Arartekoa



## ARARTEKOAREN HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO POLITIKA

1. [ARARTEKOAREN AURKEZPENA](#)
2. [DEFINIZIOAK](#)
3. [PRINTZIPIOAK](#)
4. [HELBURUKO PERTSONAK](#)
5. [HELBURUAK](#)
6. [GARAPENA](#)
  - 6.1. [Prebentzio neurriak](#)
  - 6.2. [Erantzuna haur edo nerabeen aurkako indarkeria kasuetan](#)
  - 6.3. [Babes Batzordea](#)

### ERANSKINAK:

- I. [Eranskina](#): Arartekoaren jokabide konpromisoa haurren eta nerabeen babes eta tratu onei dagokienez
- II. [Eranskina](#): Gertakariaren/salaketaren txostena
- III. [Eranskina](#): Baimena emateko inprimakiak



## 1. ARARTEKOAREN AURKEZPENA

Arartekoa erakundeak, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoarekin bat etorriz, haurren babesa eta interes gorenarekin koherenteak izango diren jokabideak sorrarazi nahi ditu erakunde barruan, haur eta nerabeentzat erakunde seguru gisa eratuz. Horregatik, bere esku dagoen guztia egiten du edozein indarkeria kasu edo susmo saihesteko eta, gertatuz gero, jokatzeko.

Haurrak eta nerabeak babesteko politika honek, horrela, gauzatu egiten du erakundeak babesteko helburu orokor horrekin duen konpromisoa, eta jokabide profesional eta pertsonaleko estandar gorena bermatzea du helburu, haur eta nerabeei inolako kalterik ez eragiteko Arartekoaren proiektu edo jardueretan parte hartzen duten bitartean.

Arartekoa erakundearen Administrazio jokabide egokirako kodeak emandako ildotik (180. EHAA, 2017ko irailaren 20koa), politika honek erakundeari eusten dioten balio eta printzipioak azaltzen ditu eta egin beharreko jarduketa zehatzak deskribatu ditu, bai arriskua gutxitzeari dagokionez -prebentzioa-, bai kalte edo abusua gertatu izanaren susmoa edo zalantza egonez gero berehala erantzuteari dagokionez.

## 2. DEFINIZIOAK

**Haurra:** 18 urtetik beherako pertsona oro (Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren 1. artikulua). Dokumentuan nerabeak berariaz aipatzeko ahalegina egingo bada ere, haur terminoa erabiltzen den aldi oro nerabeak ere barne hartzen direla ulertuko da.

**Tratu ona:** pertsonen artean harremanak izateko modua, bestearen duintasunarekiko errespetu eta balorazio sentimenduan oinarrituz.

**Haurren aurkako indarkeria:** *Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteko Lege Organikoaren proiektuan* jasotako definizioari jarraituz (1.2 artikulua), "mota guztietako kalte edo abusu fisiko, mental edo morala indarkeria gisa ulertzen da, edozein modutan eginda ere, informazio eta komunikazio teknologien bitartez egindakoa barne. Nolanahi ere, indarkeria gisa ulertuko dira tratu txar fisikoak, psikologikoak edo emozionalak, zigor fisikoak, umiliagarriak edo iraingarriak, ez zaintzea edo tratu arduragabea, esplotazioa, agresioak eta sexu abusuak, ustelkeria, eskolako jazarpena, genero indarkeria, emakumeen genitalen mutilazioa, gizakien salerosketa edozein helbururekin, haurrak ezkontzera behartzea, baita adingabeak babestea bermatu behar duten pertsonen eragindako omisio egintzak ere."



**Babesa:** estatu kideetarako Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren 19.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, babes neurri horiek "bere baitara bildu beharko lituzkete prebentzio-mota batzuk ezar daitezzen, haurrei dagokienez, arestian aipatu tratu txarren kasuak daudenean, halakoak identifikatu, jakinarazi, erakunde baten esku utzi, ikertu, tratatu eta begiratu daitezzen, eta, egoki denaren arabera, esku hartze judiziala izan dadin."

### 3. PRINTZIOAK

Babes politika honen xedapenei eusten dieten funtsezko printzipioen artean honako hauek daude:

1. Pertsonaren duintasuna errespetatzea.
2. Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitortutako haur eta nerabeen eskubideekin konpromisoa, bereziki:
  - a. Haurraren interes gorenaren printzipioa (3. art.)
  - b. Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan izateko eskubidea (12. art.).
  - c. Babeserako eskubideak edozein indarkeria formaren aurrean (19. art.).
3. Zintzotasuna eta gardentasuna.
4. Konfidentziasunaren bermea
5. Kolaborazioa hirugarren aldeekin, haurrak zuzen babesteko, legea betetzea zaindu behar duten organismoak inplikatur, baita haurrak babesteko zerbitzu publiko eskudunak ere, beharrezkoa denean.

### 4. HELBURUKO PERTSONAK

Arartekoaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika nahitaez bete beharko dute erakundearen parte diren langile guztiek, jarduera profesionala garatzean haur eta nerabeekin harremana badaukate. Arartekoaren ardura diren jardueren esparruan haurrekin eta nerabeekin harremanetan dauden boluntario, kolaboratzaile eta/edo praktika aldian dauden ikasleei ere badagokie aipatutako politika betetzeko betebeharra, baita zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde edo entitateei ere.

Politika hau, gainera, garrantzitsua da gure jardueretan parte hartzen duten neska-mutilentzat eta haien guraso edo lege ordezkariarentzat.

### 5. HELBURUAK

Babes politika honen **helburu nagusia** haurrak erabat garatzeko espazio eta ingurune on eta seguruak sortzea da, tratu ona nagusituko den espazioak, indarkeriarik gabe, autonomia eta parte hartzea sustatuz.



Zehazki, politika honen **helburuak** honako hauek dira:

- Haurrak eta nerabeak inplikatzeari dakarren jarduerak garatzean Arartekoari zerbitzuak ematen dizkieten edo Arartekoarekin edozein motatako harremana duten pertsona guztiek tratatu onen arloan duten erantzukizuna ulertzea, onartzea eta betetzen laguntzea.
- Haurren aurkako indarkeria egoera bat jakinarazi eta horren aurrean erantzuteko prozedurak argiak direla bermatzea, eta honako hauek dakizkitela bermatzea: erakundearen edozein jardueran egin edo parte hartzen duten haurrek eta nerabeek; gurasoek eta lege ordezkariak; erakundearen parte diren pertsona guztiek edo Arartekoa erakundearentzat zerbitzuak ematen dituztenek eta jardueran baten testuinguruan haur eta nerabeekin harremana dutenek.
- Erakundearen eta langile guztien bizitzan haur eta nerabeekiko tratatu onen eta babesaren kultura sustatzea.

Helburu horrekin, erakundearen parte diren pertsonak zein kolaboratzaileek honako hauek bermatzeko **konpromisoa** hartzen dute:

- Haur eta nerabeak babesteari lotuta sortutako edozein gairi garrantzi gorena emango zaio.
- Haur eta nerabeak babesten direla ziurtatzeko neurriak hartuko dituzte, esku hartzea ziurtatuz haurren interes gorenaren printzipioaren babespean.
- Haurrak edo indarkeria motaren bat duen egoeraren berri ematen duen beste edozein pertsona babestuko dute.
- Haurren eta nerabeen ikuspuntuak eta beharizanak entzun eta kontuan hartuko dira.
- Balizko edozein motatako tratatu txar, abusu edo esplotazio kasuak ikertzen modu egoki eta eraginkorrean jokatzea, baita kasu horiek antzeman, artatu eta bideratzeko prozesuan ere.
- Errespetua, parte hartzea, elkartasuna eta indarkeriarik ezaren balioak sustatuko dituzte haurrekin egindako esku hartzeetan, haien artean tratatu txarrik gerta ez dadin zainduz.

## 6. GARAPENA

### 6.1. Prebentzio neurriak

Indarkeria saihestea erabakigarria da haurrak eta nerabeak babesteko. Arlo horretan hartuko diren neurriek jokabide positiboak eragin ditzakete langileen artean, delituak egiteko aukera murriztu eta goiz antzeman eta jardutea ahalbidetu.



### **A: Arriskuak ebaluatzea.**

Balizko arriskuak ebaluatzea eta beharrezko neurriak hartzea arriskuak saihesteko haurrekin eta nerabeekin edozein jarduera edo programa egin aurretik, denboran luzatuko den jarduera bat izan zein jarduera puntual edo koiunturala izan.

Oinarrizko informazioa bildu beharko da, esaterako gurasoen eta haurren baimena, osasun arloko informazioa (beharrezkoa izanez gero), eta larrialdi kasuetarako harremanetan jartzeko datuak (III. Eranskina). Informazio hori eskuragarri egon beharko da jarduerak irauten duen bitartean, datu pertsonalak babesteko beharrezko zaintza neurriekin, informazio hori erabiltzea beharrezkoa izanez gero.

### **B: Langileen aukeraketa eta jokabide konpromisoa**

Haurrak eta nerabeak babesteko erakundeak duen konpromisoa langileekiko politikan ere islatu behar da; haurrekin lan egiteko beharrezko baldintzak betetzen ez dituen pertsona oro baztertzeko prozedura egokiak egotea bermatu beharko da.

Horretarako neurrietako bat pertsona horiek Arartekoaren Haur eta Nerabeekiko Jokabide Konpromisoa (I. Eranskina) sinatzea izango da, haiekin jokatzeari buruzko irizpideak jaso dituen. Horrez gain, Arartekoa haur eta nerabeak babesteko legedi guztia betetzearen mende egongo da, haur eta nerabeekin harremanetan egongo diren langileen kasu zehatzean, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, sexu askatasun eta sexu ukigabetasunaren aurkako delituengatik epai tinkoz zigortua ez izatea egiaztatzen duena.

Babes politika hau indarrean sartzen den unean haur eta nerabeei dagokienez dagoeneko Arartekoa erakundearen lanean ari direnei eskatu ahalko zaizkie neurri hauek, baita etorkizunean haur eta nerabeekin harremanetan egonez egin beharreko eginkizunetarako hautatutako edo atxikitako langileei ere.

### **C: Kolaboratzeko akordio eta kontratazio seguruak**

Aurrekoarekin bat etorritz, eta, horrenbestez, erakundetik kanpoko pertsonak, Arartekoaren ekimenez haur eta nerabeekin egin beharreko jardueretako bat garatzeko kontratatuz gero, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute.

Haurrak eta nerabeak inplikatzeko ekarriko duten zerbitzuak egiteko kontratatutako enpresen kasuan, enpresek bermatu egin beharko dute haurrekin harremanetan egongo diren edo haiekin kontaktua izango duten pertsonak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria daukatela.



## **D: Informazioa, komunikazioa, sentsibilizazioa.**

Haurrak eta nerabeak parte har dezaketen edo bertaratu daitezkeen esku hartzeak egitea funtzioen artean dituzten langile guztiek zein langile kolaboratzaile eta praktika aldiko langileek Arartekoaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politikaren ale bat jasoko dute, baita horren ardura duen pertsonaren izena eta harremanetarako datuak ere.

Erakundearen jardueretan parte hartzen duten haur eta nerabeekin harremana izango duten zerbitzu emaile guztiek babes politika honen eta edukiaren berri izango dute, eta, eskatuz gero, ale bat jasoko dute.

Arartekoaren jardueretan parte hartzen duten haur eta nerabe guztiek zein haien guraso eta ordezkari legalek babes politika honen edukiaren berri jasoko dute zehatz-mehatz, berariaz aipatuz norengana eta nola jo behar duten kezka izanez gero edo salaketa bat aurkeztu nahi badute.

## **E: Datu pertsonalen babesa eta teknologiaren erabilera**

Arartekoaren erakundeak informazio pertsonalaren erabilera arautzeko segurtasun prozedurak dauzka, irudiak barne, eta egoera guztietan erabili behar dira. Jarraibide hauek informazio horretara sarbidea duten pertsona guztientzat dira aplikagarriak, erakunde barrukoak zein pertsona kolaboratzaile eta zerbitzu emaileak.

Arartekoak sustatutako jardueretan parte hartzen duten haur eta nerabeek haien datu eta irudiak babesteko neurri eta prozeduren berri izango dute, eta irudiak erabiltzeko baimena eskatuko zaie, azaldutako prozedurekin bat etorriz. 14 urtetik beherako haurren kasuan, baimena haien ordezkari legalek sinatuko dute. 14 urtetik gorako nerabeen kasuan, baimena nerabeak eurek sinatuko dute, eta, modu osagarrian, haien ordezkari legalek (III. eranskina)

### **6.2. Erantzuna haur edo nerabeen aurkako indarkeria kasuetan.**

Arartekoa haur eta nerabeentzat erakunde segurua izateko, arriskuak gutxituko dituzten neurriez gain, barne prozedurak ere bideratu beharko dira erakundearen jarduketan esparruan haur eta nerabeen aurka edozein indarkeria motari dagokionez alegazio, kezka, susmo edo salaketak jakinarazi, erregistratu, aztertu eta horiei erantzuna ematen zaiela bermatzeko.

Prozedura hori guztia azkartasun, konfidentzialtasun, sinesgarritasun printzipiopean garatu behar da, inplikaturako pertsona guztien duintasuna eta intimitatea babestuz eta bermatuz, bereziki haur eta nerabeena.



Arartekoaren zerbitzura dauden pertsona guztiek zein kolaboratzaile eta zerbitzu emaileek haurrak eta nerabeak babesteko arduradun izendatutako pertsonari jakinarazi beharko diote jokabide konpromisoa urratu izana edo horren gaineko sor daitekeen edozein susmo.

**Jakinarazpen protokoloak** honako gai hauei zehatz-mehatz erantzungo die:

**A. Nork jakinaraz dezake?**

- Arartekoak sustatu edo garatutako jardueretan parte hartzen duten haurrek edo nerabeek.
- Haur horien gurasoek eta arduradunek.
- Erakundearen parte diren langile, kolaboratzaile, praktika aldiko ikasle eta zerbitzu emaileek.

**B. Zer jakinarazi behar da?**

- edo ezinegon Haurrak Erakundeko pertsona batek, Arartekoarentzat zerbitzu bat ematen duen pertsona batek edo kolaboratzaile batek erakundeko jokabide konpromisoa urratu duela susmatzen den edozein egoera.
- Erakundeko pertsona batek, Arartekoarentzat zerbitzu bat ematen duen pertsona batek edo kolaboratzaile batek izan dezakeen edozein zalantza eta Nerabeak Babesteko Politikari eta/edo jokabide konpromisoari dagokionez.

**C. Noiz jakinarazi behar da?**

- Jokabide konpromisoaren urraketa bat bada, lehenbailehen.
- Zalantza edo ezinegon bat bada, edozein momentutan.

**D. Nori eta nola jakinarazi behar zaio?**

- Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politikaren arduradun gisa izendatutako pertsonari, kasu honetan, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduradunari.
- Existitzen den edozein kanalen bitartez jakinaraziko da: modu presentzialean, telefonoz, posta elektronikoz edo posta arruntez.
- Ezin bazaio pertsona horri jakinarazi edo pertsona hori gertaeretan inplikaturik egonez gero, jakinarazpena zuzenean Idazkaritza Nagusira bideratuko da.

**E. Jakinarazpena jaso ondorengo ekintzak**

- Jokabide konpromiso edo babes politikari buruzko zalantza edo ezinegon bat bada, pertsona arduradunak berehala ebatziko du, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordearekin kontsultatzea beharrezkoa den kasuetan salbu.
- Salaketa izanez gero, pertsona arduraduna salatzailearekin jarriko da harremanetan jakinarazi denetik gehienez 24 orduko epean, informazio gehiago jasotzeko eta salaketa formalizatzeko Gertakari/salaketaaren txostena osatuz (II. eranskina). Ezinezkoa baldin bada pertsona arduradunak E atal honetan jasotako funtzioak betetzea, gertatutakoan inplikaturik dagoelako edo beste edozein inguruabar dela medio, orduan Haur eta Nerabeentzako Bulegoko teknikari batek ordeztuko du.



- Beharrezkotzat joz gero, pertsona arduradunak garatzen ari den jarduera bertan behera utzi ahalko da, salatutako gertaerak gertatu diren esparruan.
- Gertakari/salaketaaren txostena jaso eta hurrengo 24 ordu baliodunen barruan, pertsona arduradunak gertatutakoa Babes Batzordeari jakinaraziko dio, baita jarduera bertan behera uzteko hartutako neurriak ere, hala badagokio.
- Babes Batzordearen kideren bat salatutako gertaeran inplikaturik egonez gero, salatu gisa zein lekuko modura, ez du eztabaidan parte hartuko.
- Batzordeak ikerketa espedientearen abiatzea aztertu, ebaluatu eta, hala badagokio, proposatuko du, baita komenigarritzat jotako bestelako edozein kautela neurri hartzea ere, ikerketa garatzen den bitartean.
- Idazkaritza Nagusiak salaketa jakinaraziko dio salatutako pertsonari, idatziz eta argudiatuta, salatutako pertsonak jakin dezan eta dagozkion ondorioak izan ditzan; salaketa osatzen duten gertaerak azaldu eta kargu orriak igorriko zaizkio.
- Halaber, Idazkaritza Nagusiak salatzaileari jakinaraziko dio salaketa bideratu egin dela eta ikerketa espedientearen abiatu dela.
- Salatutako pertsonak, jakinarazpena jaso eta zazpi egun balioduneko epean, idatziz igorriko ditu gertatutakoa argitzeko komenigarritzat jotzen dituen alegazioak.
- Aldi berean, hau da, zazpi egun balioduneko epe berean (salbu eta, arrazoi justifikatuak tarteko, epea luzatzea beharrezkoa bada), pertsona arduradunak salatutakoa ikertuko du, pertsona salatzailea, salatua eta balizko lekukoak elkarrizketatzea barne, posible den informazio oro biltze aldera; informazio hori guztia azken txostenean jasoko da.
- Txostena bukatutakoan eta gehienez 3 egun balioduneko epean, pertsona arduradunak berriz ere Babes Batzordea deituko du txostena aurkezte aldera, Batzordeak jokabide konpromisoa urratu den ala ez ebazteko ondorioak atera ditzan, baita eman beharreko hurrengo urratsei buruz ebatzi dezan ere.
- Ondorioztatuz gero jokabide konpromisoa ez dela urratu, orduan adieraziko da ez dela urraketarik egon eta, horrenbestez, espedientearen artxibatzea proposatuko da.
- Jokabide konpromisoa urratu dela ondorioztatuz gero:
  - i. Salatutako pertsona kontratatua edo zerbitzu bat ematen duen enpresa bateko langilea bada, kontraesanaren prozesua hastea proposatuko da, kontratua bertan behera uzteko.
  - ii. Pertsona salatua erakundearen parte baldin bada, diziplina jarduketak abiaraztea aztertuko da.
- Babes Batzordearen proposamena ikusita, arartekoak ebazpen argudiatua emango du, hartutako erabakia bilduz; inplikaturikotako pertsonari jakinarazi egingo zaie.



- Arartekoaren erakundeak, hala badagokio, salatutako pertsonaren jokabidetik eratorritako ekintza legalak abiaraziko ditu salatutako pertsonaren kontra.
- Pertsona arduradunak bermatu egingo du kaltea edo abusua pairatu duen haurrak edo nerabeak babes eraginkorra jasotzen duela eta kaltea konpontzeko agindutako bitartekoetara sarbidea duela.

### 6.3. Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordea

Arartekoko Haurrak eta Nerabeak Babesteko Batzordea erakundeak garatu edo sustatutako jarduera guztietan haur eta nerabeen eskubideak errespetatzen direla zaindu behar duen erakundeko kontrol organoa da.

Batzordea erakundeko titularrak **gidatzen** du (arartekoak), eta batzordea **osatuko** dute une horretan honako funtzio hauek betetzen dituzten pertsonak: albokoa, Idazkaritza Nagusia, Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko Zuzendaritza, Aurrekontu eta Ekonomia Kudeaketako eta Administrazioiko Zuzendaritza eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduradunak.

Batzordearen **funtzioak** honako hauek dira:

1. Arartekoaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika ezagutzera ematea eta betetzen dela bermatzea, honako hauek ziurtatuz:
  - a) Arartekoari lotutako pertsona guztiek eta haurren eta nerabeen parte hartzea duten jarduketetan esku hartzen duten pertsona orok badute jokabide konpromisoaren eta politikaren berri, horrekin bat egiten dute eta ados agertu dira, dokumentua sinatuz.
  - b) Politika publikoa da eta erakundearen baliabide guztietatik hedatzeko eskuragarri dago.
2. Haurren aurkako indarkeria egoeretan esku hartzea eta laguntzea, edozein indarkeria adierazpen dela ere, ikerketa bermatuz 6.2 atalean azaldutako prozedurari jarraiki.

Funtzio horretan, erakundearen pertsona titularra (arartekoa) Babes Batzordetik urrunduko da, batzordearen independentzia mantentzeko.
3. Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika ebaluatu eta eguneratzeko proposamenak egitea, eskuratutako esperientzian oinarrituz, hiru urterik behin, gertaera zehatzen ondorioz dokumentua epe horren aurretik berrikustea komenigarria edo beharrezkoa bada salbu.



## **I. ERANSKINA: ARARTEKOAREN JOKABIDE KONPROMISOA HAURREN ETA NERABEEN BABES ETA TRATU ONEI DAGOKIENEZ**

Arartekoak sustatutako edo antolatutako jardueretan hurrekin eta nerabeekin lan egiten dugun pertsona orok honako **konpromiso** hauek hartu ditu:

1. Indarkeriarik gabeko espazio eta harremanak sortzea hurrei erasaten dieten esparru eta esfera guztietan.
2. Haurren integritate fisiko, psikiko eta sexueralako arriskutsuak diren egoerak ezagutzea eta identifikatzea, egoera horiek saihesteko eta, gertatuz gero, esku hartzeko.
3. Haurren eta haien familien datu pertsonalei buruzko pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.
4. Haur bakoitzaren espazio intimo eta interpertsonalak errespetatzea.
5. Haurren eskubideak urratzen dituzten ekintzak, praktika txarrak edo indarkeria jokabideak salatzea, Arartekoak ikertzea errazteko, kasu horietarako ezarritako prozedurekin bat etorritik.
6. Hurrek parte hartzea erraztea eta indartzea, kanalak finkatzea hurrek eta nerabeek adierazteko aukera izan dezaten, salaketak eta eskaerak barne.
7. Gurasoei eta ordezkari legalei baimena eskatzea hurrei argazkiak ateratzeko edo filmatzeko. Haien irudiaren, intimitatearen eta duintasunaren eskubideak errespetatzea. Hurrei argazkiak egiteko edo filmatzeko horretarako emandako Arartekoaren gailuak erabiliko ditugu (argazki kamera, bideo kamera edo telefonoa). Ez ditugu gure gailu pertsonalak erabiliko, ez ditugu irudiak sare sozial pertsonaletan erabiliko, horretarako berariazko baimena izan ezean.
8. Haurren aurkako edozein indarkeria egoeraren berri ematea. Egoera horiek jakinaraztea erantzukizun legal eta etikoa da.
9. Haurrak babestu, hurrek parte har dezaten eta haiei arreta emateko jokabide edo jarduketa desegokiak saihestea.

**Haur eta nerabeekiko tratu zuzenari dagokionez, honako hau ez da onargarria:**

1. Bizitzaren edozein esferatan kalte egin dezaketen jokabideak izatea, esaterako lotsaraztea, umiliatzea, isolatzea, estigmatizatzea, mespretxatzea, degradatzea eta zigortzea.
2. Gure programetan haur edo nerabe batekin bakarrik edo urrunduta egotea, justifikazio profesionalik gabe, harreman pertsonal eskusiboak eta haiekin kontaktu intimoak izatea saihestuz.
3. Adingabeekin jarduera sexualetan parte hartzea, harreman fisikoak zein birtualak izan.
4. Haur eta nerabeen aurkako homofobia, sexismo, arrazakeria edo gorrotoa eragiten duten jokabideak, jarrerak edo teoriak izatea.
5. Jokabide iraingarriak, jokabide fisiko desegokiak edo sexualki probokatzailerak adieraztea haur eta nerabeen aurrean.



6. Haur edo nerabeekiko jokabide arriskutsuak edo legez kanpoko jokabideak izatea edo baimentzea, esaterako substantzia psikoaktiboak kontsumitzea, erretzea, alkohola edatea, etab.
7. Haur jakin batzuen alde egiteko edo bereizteko tratuak izatea, diskriminatzea, beste batzuen kaltetan.
8. Haur edo nerabeen artean indarkeria jokabideak onartzea eta botere desorekan oinarritutako dinamikak ezartzea.
9. Gure jarduera edo jarduketetan parte hartzen duten haur edo nerabeekiko kontaktu pertsonaleko formak erabiltzea, esaterako posta elektronikoa, sakelako telefonoak eta bestelakoak, Arartekoaren jarduera ez bestelako helburuz.

## **ADIERAZPEN PERTSONALA**

Berresten dut Arartekoaren Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika eta Jokabide Konpromisoa irakurri, ulertu eta horien printzipioak onartzen ditudala, eta badakit zein betebeharrak izan jakin ditzakedan datu pertsonalen sekretu betebeharrari dagokionez.

Onartzen dut babes politika honen edozein arau edo agindu ez betetzeak edo ez zaintzeak, nire lana dela medio zein nire bizitza pribatuko jokabide edo ekintzen ondorioz, Arartekoa erakundearekin dudan lan harremanak, harreman akademikoak, profesionalak edo boluntarioak indarrean jarraitzen duen bitartean, ondorioak izan ditzakeela, tartean diziplina neurriak berehala hartzea, edo, are gehiago, baita zigor neurriak ere, nire kontra.

Hirugarren pertsona batek Arartekoaren Haur eta Nerabeak Babesteko Politika eta Jokabide Konpromisoan jasotako estandar eta arauak betetzen ez baditu, horretarako definitutako kanalen bitartez jakinarazteko konpromisoa hartzen dut.

IZENA ETA ABIZENAK:

DATA ETA SINADURA:



## II. ERANSKINA: GERTAKARIAREN / SALAKETAREN TXOSTENA

Eranskin hau bete behar du Arartekoaren Haur eta Nerabeak Babesteko Politika edo Jokabide Konpromisoa ez dela bete pentsatzeko susmoa, kezka edo ziurtasuna duen pertsonak. Babes politikaren ardura duen pertsonari igorri behar zaio gertakaria gertatu eta hurrengo 24 orduen barruan. Txosten hau KONFIDENTZIALA da.

<b><i>Informatzailearen datuak:</i></b>	
Izena eta abizenak	
Telefonoa	
Lanpostua	
Harremana kaltetutako haurarekin	
<b><i>Salatutako pertsonaren datuak:</i></b>	
Izena eta abizenak	
Lanpostua	
Harremana kaltetutako haurarekin	
<b><i>Kaltetutako hauraren/nerabearen datuak</i></b>	
Adina	
Sexua	
Zein jardueretan hartzen duen parte	
<b><i>Gertakariaren xehetasunak</i></b> (saiatu zehaztu zer, nork, non, noiz; posible izanez gero, kaltetutako hauraren hitzak objektiboki biltzen saiatu, interpretaziorik edo suposiziorik gabe; ordura arte hartutako neurriak).	
<b><i>Balizko lekukoaren datuak:</i></b>	
Izena eta abizenak	
Telefonoa	
Harremana kaltetutako haurarekin	
<b><i>Tokia eta data</i></b>	<b><i>Sinadura</i></b>

<p align="center"><b><u>Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko informazioa</u></b>            Pertsona salatuari eta lekukoei entregatu beharreko informazioa            (eta/edo haien ordezkari legalei).</p>		
<b>Tratamenduaren arduraduna:</b>	Arartekoa	<p><b>Helbidea:</b> Prado 9, 01005, Vitoria-Gasteiz.  <b>Telefonoa:</b> 945 13 51 18.  <b>Helbide elektronikoa:</b>  <a href="mailto:arartekoa@ararteko.eus">arartekoa@ararteko.eus</a>.  <b>Datuak babesteko arduradunaren kontaktua:</b>  <a href="mailto:lopd@ararteko.eus">lopd@ararteko.eus</a></p>
<b>Tratamenduaren helburua</b>	Gertakariak ikertzeko prozesua	Pertsona salatuen eta/edo lekukoen identifikazio eta harremanetarako datuak zein Arartekoak jakin dituen gertakarien datuak lantzean Arartekoak bete egingo du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika.
<b>Datuen jatorria</b>	Gertakariak ikertzeko prozesua	Titularrengandik jaso ez diren datu pertsonalak gertakaria ikertzeko prozesuan lortu dira.
<b>Tratamenduaren legitimazioa</b>	Funtzio publikoaren eskumenak.	Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa betetzea.
<b>Nazioarteko transferentziak edo lagapenen hartzaileak</b>	Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako.	Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, salbu eta legez edo auzitegiek hala eskatzen badute.
<b>Pertsona interesatuen eskubideak</b>	Datuetara sarbidea izatea, zuzentzea, ezabatzea zein beste eskubide batzuk baliatzeko mezu bat bidali behar da <a href="mailto:lopd@ararteko.eus">lopd@ararteko.eus</a> helbidera, informazio gehigarrian azaldu bezala.	
<b>Informazio gehigarria</b>	Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu: <a href="http://www.ararteko.eus">www.ararteko.eus</a>	

### III. ERANSKINA: INFORMAZIO ETA BAIMEN INPRIMAKIAK

<b>Informazio pertsonala:</b>	
Abizenak eta izena:	
Jaiotza-data:	
Telefono mugikorraren zenbakia	
Posta elektronikoa	
(Jardueran) parte hartzearekin ados zaude?	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Jakin behar dugun alergiaren bat al daukazu?	
<input type="checkbox"/> Bai. Zeri?	<input type="checkbox"/> Ez
Adierazi nahi duzun laguntza beharrianen bat al daukazu (desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala, komunikatzeko zailtasuna...)?	
<input type="checkbox"/> Bai. Zein?	<input type="checkbox"/> Ez
Jakin behar dugun medikaziorik hartzen al duzu?	
<input type="checkbox"/> Bai. Adieraz ezazu, mesedez, jakin behar duguna (zer, dosia, maiztasuna)	<input type="checkbox"/> Ez
Beharrian dietetikorik al daukazu?	
<input type="checkbox"/> Bai. Zein?	<input type="checkbox"/> Ez
Parte har dezazun geuk jakin behar dugun bestelako informazio garrantzitsua egonez gero, mesedez, adieraz ezazu hemen:	
Larrialdiren bat gertatuz gero, ospitaleko edo hortzetako tratamendua jasotzearekin ados zaude, anestesia barne?	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
<b>Harremanetarako pertsonak larrialdi kasuan:</b>	
1 pertsona:	2 pertsona:
Izena	Izena
Harremana zurekin	Harremana zurekin
Telefono zk.:	Telefono zk.:

<b>Datu eta irudi pertsonalak erabiltzeko baimena</b>	
<i>Arartekoaren jardueretan parte hartu ahalko duzu, zure izena hedatzea nahi ez baduzu ere.</i>	
Arartekoak publikoki jakinarazten du zein jarduera egiten duen, eta horren berri ematen du webgunean ( <a href="http://www.ararteko.eus">www.ararteko.eus</a> ) eta sare sozialen bitartez. Horretarako, batzuetan, zuk bezala jardueretan parte hartzen duten pertsonen argazkiak eta adierazpenak erabiltzen ditu.	
(Jardueraren izena) bisualki jasotzeko dokumentazioan –argazkiak, bideoak– parte hartzearekin ados al zaude? <i>Ados bazaude, argazkiak, entzun eta ikusteko materiala, material idatzia edo artistikoa gure webgunean eta gure sare sozialetan aipatutako inguruabarretan partekatze baimena emango diguzu<sup>1</sup>. Baita gure txosten eta orrietan ere, gure jardueretan eta haur eta nerabeekin lan egiten duten pertsona eta erakundeekin Euskadin, Espainian zein Europan egiten dugun hedapen lanean.</i>	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Zure ahotsa bideoan edo audioan grabatzearekin edo idatziz edo modu artistikoan erregistratzearekin ados al zaude, eduki hori lehenago adierazi bezala hedatzeko?	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Eduki hori partekatzean zure izena (abizenik gabe) aipatzearekin ados al zaude?	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
(Jardueraren izena) garatzean komunikabideekin hitz egitearekin ados al zaude? Hori egiteak argazkiak, bideoak, irati eta telebista estaldura ere ekar dezake. <i>Komunikabideekin edozein elkarrizketa egitean Arartekoko pertsonekin kontsultatuko da, eta elkarrizketa pertsona haiekin eta haien aurrean egingo da. Ez baduzu galderaren bat erantzun nahi, ez duzu erantzun behar.</i>	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
Datu pertsonalak babesteko Arartekoaren tratamenduaren berri jaso al duzu? <i>Xehetasunak atxikitako "Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko informazioa" taulan irakur ditzakezu.</i>	
<input type="checkbox"/> Bai	<input type="checkbox"/> Ez
<b>Nire baimena:</b>	
Data eta lekua	Sinadura

<sup>1</sup> Datuak sare sozialetan argitaratzean nahitaez datuak nazioartean transferitu behar zaizkie Google, Inc. (YouTube erabiltzean), Facebook, Inc., Twitter, Inc., Vimeo, Inc. enpresei; enpresa horiek egoitza AEBetan daukate eta bat egin zuten EU-US Privacy Shield Akordioarekin (2016/679 EB Erregelamenduko 45.1 artikulua babespian).





## GURASOEN EDO ORDEZKARI LEGALEN BAIMENA

Izena eta abizenak:

Haurra/nerabea:

Harremana haurrarekin/nerabearekin:

NAN zenbakia:

Telefonia:

Posta elektronikoa:

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT (*egokitzen jotako oro adierazi*):

- Nire tutoretzapean daukadan pertsona adingabeak informazioa jaso du jardueraren helburuei, jarduera horretan borondatez parte hartzeari dagokionez eta edozein unetan parte hartzea bukatzeko aukerari dagokionez, inolako ondorioz gabe, baita Arartekoak jarduera hedatze aldera irudi eta datu pertsonalak erabiltzeko beharrezko baimenari dagokionez ere.
- Arartekoaren datu pertsonalak babesteko tratamenduari buruzko oinarrizko informazioa jaso dut (atxikita doa).

Nire BAIMENA ematen dut honetarako:

- (Jardueraren izena) jardueran parte hartzeko.
- (Jardueraren izena) jarduerari lotutako ekintza mediatikoetan parte hartzeko.
- Arreta medikoa jasotzeko, larrialdi kasuetan.
- Larrialdietara Arartekoko langileekin batera joateko, ni bertaratu arte.
- Adingabearen irudia eta ahotsa Arartekoa erakundeak ekoiztutako bideoetan hedatzeko, baita erakundearen webgunean eta hainbat plataformatan ere, tartean YouTube eta Vimeo, zein sare sozialetako profiletan, tartean Twitter eta Facebook, horretarako inguruabar eta ezaugarri berezietan<sup>2</sup>.

Data eta lekua:

1 gurasoaren/ordezkarri legalaren izena:	2 gurasoaren/ordezkarri legalaren izena:
Izpta.:	Izpta.:

<sup>2</sup> Datuak sare sozialetan argitaratzean nahitaez datuak nazioartean transferitu beharko zaizkie Google, Inc. (YouTube erabiltzean), Facebook, Inc., Twitter, Inc., Vimeo, Inc. enpresei; enpresa horiek egoitza AEBetan daukate eta bat egin zuten EU-US Privacy Shield Akordioarekin (2016/679 EB Erregelamenduko 45.1 artikulua babespean).

<b><u>Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko informazioa</u></b>		
<b>Tratamenduaren arduraduna:</b>	Arartekoa	<b>Helbidea:</b> Prado 9, 01005, Vitoria-Gasteiz. <b>Telefonoa:</b> 945 13 51 18. <b>Helbide elektronikoa:</b> <a href="mailto:arartekoa@ararteko.eus">arartekoa@ararteko.eus</a> <b>Datuak babesteko arduradunaren kontaktua:</b> <a href="mailto:lopd@ararteko.eus">lopd@ararteko.eus</a>
<b>Tratamenduaren helburua</b>	Ararteko erakundeko haur eta nerabeen eskubideak sustatzea eta jarduerak hedatzea.	Arartekoak parte hartzaileen ahots eta irudi datuak lantzean kontseiluaren jarduerak hedatzea izango du helburu, baita Arartekoa erakundeko haur eta nerabeen eskubideak sustatzea ere.
		Irudiak eta ahotsa jaso diren ikasturtean zehar gordeko dira.
<b>Tratamenduaren legitimazioa</b>	Pertsona interesdunaren baimena	<b>DBEOren 6.1 a) artikulua eta 3/2018 Lege Organikoaren 7. artikulua. Baimena</b> Datu pertsonalak tratatzeko oinarri legala inprimaki honetan emandako baimena izango da.
<b>Nazioarteko transferentziak edo lagapenen hartzaileak</b>	Datuak hirugarrenei komunikatzea	Ahots/irudi datuak sare sozialetan hedatzean datuak hirugarrenei komunikatuko zaizkie, zerbitzu horien izaera eta funtzionamenduari erreparatuz.
	Datuen nazioarteko transferentziak	AEBetara, sare sozialak erabiltzean, EU-US Privacy Shield Akordioarekin bat egindakoak (2016/679 EB Erregelamenduko 45.1 artikulua babespean).
<b>Pertsona interesatuen eskubideak</b>	Datuetara sarbidea izatea, zuzentzea, ezabatzea zein beste eskubide batzuk baliatzeko mezu bat bidali behar da <a href="mailto:lopd@ararteko.eus">lopd@ararteko.eus</a> helbidera, informazio gehigarrian azaldu bezala.	
<b>Informazio gehigarria</b>	Datu pertsonalak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza gure webgunean kontsulta dezakezu: <a href="http://www.ararteko.eus">www.ararteko.eus</a>	